Idiazabalgo Udala

(GIPUZKOA)

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, MUSIKA ESKOLAKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO

1.- XEDEA.-

Kontratu honen xedea izango da Musika Eskolako zerbitzua ematea Idiazabalen, Itsasondon, Legorretan eta Zaldibian.

Hezkuntza Sistemaren segidako erreformek arautu dituzte Musika Irakaskuntzak, eta irakaskuntza horiek irakaskuntza arautuan nahiz ez-arautuan eman izan dira. Araubide Bereziko Irakaskuntza gisa sailkatzen dira. Musika Irakaskuntzen erreferentziazko legediarik berriena hau da:

LOGSE -

1999ko ekainaren 25eko AGINDUA, Musika Irakaskuntzen goi mailako graduaren curriculuma ezartzen duena.

HLO -

Maiatzaren 3ko ***2/2006 LEGE ORGANIKOA,*** HEZKUNTZARI buruzkoa.

Urriaren 26ko ***1614/2009 ERREGE DEKRETUA.*** Honen bidez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006ko Lege Organikoak arauturiko goi mailako arte irakaskuntzen antolamendua ezartzen da.

Maiatzaren 14ko ***631/2010 ERREGE DEKRETUA.*** Honen bidez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006ko Lege Organikoan ezarritako Musikako Graduko goi mailako arte irakaskuntzen oinarrizko edukia arautzen da.

Ekainaren 25eko ***368/2013 DEKRETUA.*** Honen bidez, Musikako goi mailako arte irakaskuntzak arautzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan, espezialitate hauetan: Konposizioa, Zuzendaritza, Interpretazioa eta Pedagogia.

LOMCE -

Abenduaren 9ko **8/2013 LEGE ORGANIKOA**, hezkuntza hobetzeko.

Musika Irakaskuntza hezkuntzako etapa eta maila guztietako curriculum ofizialaren barnean dago, modu orokorrean, 0 urtetatik hasita (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan). Horrez gain, Arte Eszenikoa, Musika eta Dantza Batxilergoa deituriko batxilergoko adar bat dago.

Musika Irakaskuntzak berariaz maila eta esparru hauetan ematen dira:

IRAKASKUNTZA ARAUTUAK: Balio akademikoa duten tituluak lortzen dira irakaskuntza hauen bidez, eta lanbide bat gauzatzea dute helburu:

- Unibertsitatez kanpoko mailak (bereziak):
  - Musika Kontserbatorioak (Oinarrizko Gradua, Erdi mailako Gradua eta Goi mailako Gradua)

- Unibertsitateko mailak (bereziak):
  - Irakasleen Unibertsitate Eskola, Musika Hezkuntzan espezializaturiko maisua.
  - Musika Irakaskuntzen Goi Mailako Zentroa, Musikako Gradua, espezialitateak:
    - Konposizioa
    - Pedagogia

- Zuzendaritza
  - Abesbatzako Zuzendaritza
  - Orkestrako Zuzendaritza
  - Interpretazioa: Akordeoia, harpa, kantua, klarinetea, kontrabaxua, fagota, txirula, gitarra, jazza, baxu elektrikoa, bateria, kantua, kontrabaxua, gitarra, pianoa, saxoa, tronboia, tronpeta, oboea, organoa, perkusioa, pianoa, saxofoia, tronboia, tronpa, tronpeta, tuba, txistua, biola, biolina, biolontxeloa.

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUAK (Musika Eskolak): Irakaskuntza hauen ondorioz ez dira lortzen balio akadamikoa duten tituluak, eta helburua musika egitea da besterik gabe, kultura eta arte adierazpen gisa.

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorrari buruzkoak, hau dio Araubide Bereziko Irakaskuntzei buruzko II Tituluan, Arte Irakaskuntzei buruzko Lehenengo Kapituluan, 39.5 artikuluan:

«Aurreko ataletan ezarritakoa horrela izanik ere, eskola berezietan musika edo dantza ikasketak egin ahal izango dira, adinaren mugarik gabe; ikasketa horien ondorioz ez dira balio akademikoa eta profesionala duten tituluak eskuratuko inola ere, eta ikasketa horien antolaketa eta egitura atal horietan ezarritakoen desberdinak izango dira. Eskola horien arauketa hezkuntza administrazioen esku egongo da».

Horren arabera, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak oinarrizko arauak ezartzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko musika eskolak eta arautu gabeko berariazko musika irakaskuntzarako ikastetxeak sortzeko eta haien funtzionamendurako. Dekretuak alderdi hauek arautzen ditu:

- I. Titulua: Aplikazio eremua, helburuak eta irakaskuntzen antolaketa.
- II. Titulua: Bete behar dituzten baldintzak.
- III. Titulua: Musika Eskoletako irakaskuntzaren antolaketa, irakasleen titulazioa, ikuskapena eta kudeaketa.
- IV. Titulua: Musika Eskolak irekitzea, aldatzea eta iraungitzea
- Xedapen gehigarriak, iragankorrak eta amaierakoak

Kontratuaren xedea oinarrituko da 289/1992 Dekretuan, urriaren 27koan, Euskal Autonomi Elkartean Musika Eskola direlako arautu gabeko musika irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituenean.

Xedea jasota dago 9/2017 Legearen, azaroaren 8koaren, Sektore Publikoari buruzkoaren, 17. artikuluko kasuetan; zerbitzuak prestazio zuzenak ezartzen ditu, herritarren mesedekoak, eta, horrenbestez, 312. artikuluko zehaztapenak.

Zerbitzuak udal lokaletan edota ikastetxeetan emango dira. Hezkuntza-baaimenak izapidetuko ditu kontratistak.

2.- ZERBITZUAREN TITULARTASUNA

Titulartasuna Udalarena da, 2/2016 Legearen, apirilaren 7koaren, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 7. xedapen iragankorrari eta 1/1993 Legearen, otsailaren 19koaren, Euskal Eskola Publikoarenaren, 9. xedapen gehigarriari jarraikiz.

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, onartu aurretik abian zegoen zerbitzu bat da.

3.- ZERBITZUAREN HELBURUAK

Kontratuaren helburua da irakaskuntza musikal espezifikoa eta kalitatezkoa eskaintzea, arautu gabeko musika irakaskuntzaren bitartez, eta, are zehatzago:

a) Kultura musikal praktikoaren eskaera sozial handia asetzea, zeinaren bitartez musikazaleak bilatzen baitu asetasun pertsonal handiagoa eta haren ondaren kulturala eta adierazpen ondarea zabaltzea, bere buruarekin eta ingurumenarekin harmonia handiagoa izateko.

b) Arautu gabeko eta funtsean praktikoa den musika irakaskuntza eskaintzea, taldekako musika sortzeko helburu nagusiarekin.

c) Horren ondorioz, ikaslearen partaidetza aktiboa sustatzea, bai banaka, bai taldean, eta sustatzea eskolaren eta hura errotuta dagoen gizartearen arteko harremana. Ikaskuntza norberarengan hasten bada eta norberarengan amaitzen bada, gizartean eraginik izan gabe, haren izatezko arrazoiaren zati handi bat galtzen du.

d) Ezinbesteko alderdi teorikoak irakastea, musika modu zabalagoan ulertzeko, eta, printzipioz, hori egitea sakontzeko beharra sentitzen duten ikasleek beraiek eskatuta.

e) Aipatutako zerbitzua edozein adinetako ikasleei eman ahal izatea, haurretatik hasi eta adin nagusikoetara.

f) Jarduera musikalean dagoen aukera guztia ematea: musika klasikoa, antzinakoa, modernoa, tradiziozkoa, herrikoia, hainbat joera, rock, jazz, musika elektronikoa eta abar.

g) Irakaskuntza programazioa egokitzea ikaslearen interesei, dedikazioari eta erritmoari, ulertuta ikasleak ere baldintza minimo batzuk izan beharko dituela, jasotako irakaspenez ondo baliatzeko aukera izateko. Ondorioz, askatasuna eta autonomia dago eskaintza planifikatzeko, ikaslearen interesei eta gaitasunei hobeto egokitzeko.

h) Indartzea estilo musikal guztiak entzuteko zaletasuna, eta kritikarako gaitasuna garatzea, bai ikasleengan, bai herritarrengan.

i) Irakaskuntza tekniken hobekuntza sustatzea, irakasleak etengabe perfekzionatuz eta eguneratuz.

j) Orientatzea eta informazio sakonagoa ematea beren gaitasunagatik edo interesagatik ikasketa arautuetara sartzeko baldintzak betetzen dituzten edo asmoa duten ikasleei; alegia, ikasketa musikal arautuak eskaintzen dituzten ikastetxeak ikasle motibatuz eta gaitasun handikoz hornituko dituzten bibero bat izatea.

k) Herriko eta eskualdeko musika tradizioak biltzea, sistematizatzea eta zabaltzea, ikastetxea kokatuta dagoen herriko kultura nortasunaren gune bilakatuz.

l) Lurraldeko, Euskadiko, Espainiako eta Europako gainerako eskolekin koordinatzea, irakaskuntza metodologiak, irakasleak eta ikasleak elkartrukatzeko, jarduera bateratuak egiteko, antolamendu eta funtzionamendu ereduak elkarri erakusteko eta abarrerako aukera emango duten kontaktuak izateko.

m) Eragin positiboa izatea musika kultura herrikoian; ez soilik ikasleei prestakuntza emanez, baita musika gizartean modu zuzenean hedatuz, haien musika taldeen jarduera publiko etengabeen bitartez; horrela, ikasleek parte hartuko dute herrian egiten diren hainbat ekimen kulturaletan.

4.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena bi ikasturtekoa izango da: 2018-2019 eta 2019-2020. Ikasturte hitzarekin ulertzen da irailetik ekainerako aldia, bi hilabeteak barne, eta onartzen da luzapenerako aukera.

5.- HEZKUNTZA ESKAINTZA

5.1 HEZKUNTZA ESPARRU NAGUSIAK

1. maila edo harrerakoa/kontaktua: haurrentzako musikaren hastapena, 4-7 urteko haurrentzat. Musika eta mugimendua. Musika tresnen errotazioa

Hezkuntza musikal goiztiarrak xede du haurrak garatzea adierazpen gaitasuna, gaitasun musikala eta psikomotorra. Horretarako, metodo pedagogiko espezifiko bat aplikatuko da, beranduago aukera emango diona musika tresna bat hautatzeko, norberaren lehentasunen eta gaitasun arabera,

Ez da gaitasun mailarik egingo Haurraren pertsonalitatearen garapen harmonikoa bultzatuko du irakaslearekin eta gainerako kideekin soinu jardueraren bitartez duen elkarrekintzaren bidez. Norberaren kontzientzia hartuko du, bere barrenarekin eta ingurukoekin eta ingurukoarekin harmonian dagoen izaki gisa. Apurka-apurka hasiko da musika tresna zehatz batekin harremanetan, bost edo sei urtetik aurrera.

Irakaskuntza 4 eta 7 urte arteko haurrei zuzenduta dago, eta taldeka egingo da.

EDUKIAK

Honako hauek dira esparru horren oinarrizko edukiak:

- Ahotsa garatzea ildo bikoitz batetik: hizkuntza eta kantua.
- Harremana soinu iturriekin, askotariko materialen, objektuen eta musika tresnen bitartez.
- Iraupenari, intentsitateari, garaierari, tinbreari eta abarri lotutako parametroak ezagutzea eta adieraztea ezohiko grafiatan.
- Ohiko grafia ezagutzen hastea.
- Entzumena eta pentsamendu musikala garatzea.
- Mugimendua erabiltzea adierazpenerako bitarteko moduan, eta mugimenduarekin, ikusmenarekin eta entzumenarekin sentsibilizatzea, norberaren gorputza ezagutzeko, erritmoaren zentzua garatzeko eta harreman sozialak sustatzeko.

Hiru ikasgaitan banatuko da:

- Hautazko ikasgaia, musika eta mugimendua. 4 eta 7 urte artekoentzat (4 ikasturte)
- Hautazko ikasgaia, musika tresnen errotazioa. 7 urtekoentzat (ikasturte 1)
- Hautazko ikasgaia, haurren abesbatza. 6 eta 7 urte artekoentzat (2 ikasturte)

2. maila edo hasierakoa/hastapena: musika ikasketak 7 urtetik gorako ikasleentzat-Ikasgaiak: Hizkuntza musikala, musika tresnen praktika eta taldeko jarduerak

Ikasleak musika tresna kontzeptualizatuko du adierazpenerako beste elementu baten moduan, bere pertsonalitatea eta sentsibilitatea garatzeko elementu gisa. Alderdi teknikoa irakasleak bultzatuko du, helburu instrumental hutsarekin, alegia, ikaslearen adierazkortasuna hobetzeko beharrezko elementu gisa.

Hastapena irakasten bazaio musikarekin lehen aldiz kontaktua izan duen eskatzaile bati, alegia, 1. ziklotik ez datorren bati edo kontakturik izan ez duen bati, pedagogia haren adinari eta baldintzei moldatuko zaizkio. Kontserbatorioko oinarrizko maila gainditzeko moduko gaitasuna lortu nahi da.

Irakaskuntza 7 urtetik gorako gazteei zuzenduta egongo da.

EDUKIAK
Honako hauek dira esparru horren oinarrizko edukiak:
Ahozko gaitasunak, gaitasun erritmikoak, psikomotorrak, entzumenezkoak eta adierazpenezkoak garatzea, eta apurka-apurka irakurketa eta idazkera musikalaren oinarrizko ezagutza eta ezagutza aurreratua lortzea.
Taldekideekin bizipen musikalak izatea; horrek aukera emango die musikarekin duten harreman afektiboa aberasteko kantuaren, mugimenduaren, musika tresnaren, entzunaldien eta abarren bitartez.
Honela antolatuko da: esparru horretako irakaskuntza banaka eta taldeka egingo da, eta antolaketa hau izango du:
- Nahitaezko ikasgaia, hizkuntza musikala (4 ikasturte). Lehen ikasturtea komuna izango da ikasle guztientzat, edozein dela ere beren musika tresnen espezialitatea.

- Nahitaezko ikasgaia, musika tresnen praktika (4 ikasturte). Ikasgai hori modulutan antolatuko da, eta ikasturte bakoitzeko modulu bat egingo da lehen hiru ikasturteetan (lehenetik hirugarrenera) eta hiru laugarrenean (laugarrenetik seigarrenera), moduluen iraupena ikaslearen bilakaerari egokituko zaio.

- Hautazko ikasgaia, abesbatza (ikasturte 1). Lehen ikasturtea komuna izango da ikasle guztientzat, edozein dela ere beren musika tresnen espezialitatea.
- Hautazko ikasgaia, taldeko jarduera (3 ikasturte), 2. ikasturtetik aurrera.

MUSIKA TRESNEN ESPEZIALITATEAK; horiekin, ikasleak barruan daraman musika azalera dezake talde batean, dela ahozkoa zein musika tresnena, beste ikasle batzuekin musika sortzeko, eta horrela bere musika ikasketak amaitzeko. Musika tresnen espezialitatearen eskaintza honako adar hauetan multzokatuta dago:

A) Kantua eta Korua

B) Musika instrumental sinfonikoa
• Biolina
• Biolontxeloa
• Zeharkako txirula
• Klarinetea
• Saxofoia
• Tronpeta
• Beste batzuk (289/1992 Dekretoaren Eranskinean jasotako guztiak)

C) Musika tradizionala (Euskadiko musika tresna tradizionalak)
• Txistua
• Trikitia
• Txalaparta
• Panderoa
• Alboka
• Beste batzuk (289/1992 Dekretoaren Eranskinean jasotako guztiak)

D) Musika instrumental polifonikoa
• Eskusoinua
• Pianoa
• Gitarra klasikoa

• Beste batzuk (289/1992 Dekretoaren Eranskinean jasotako guztiak)

E) Askotariko joerak (jazz, pop, rock, musika modernoa orokorrean).
- -
• Gitarra elektrikoa
• Baxu elektrikoa
• Teknologi berriak
• Beste batzuk (289/1992 Dekretoaren Eranskinean jasotako guztiak)

TALDEKO JARDUERAK, honako hauen artean hautatu ahal izango du ikasleak:
- Haurren abesbatza
- Musika tresnen taldea
- Ganbera musika
- Gitarra orkestra
- Musika tradizionaleko taldea
- Laborategia eta musika modernoaren konbinaketa
- Saxofoi taldea
- Eskusoinu taldea
- Trikitaldea
- Bestelako taldeak (espezialitatekoak edo Musika Eskolek baimendutakoak)

3. maila edo gotortzekoa: amateur musika ikasketak, 12 urtetik gorako ikasleentzat-Ikasgaiak: Hizkuntza musikala, musika tresnen praktika eta taldeko jarduerak
Gaitasunaren muga bakarrak dira ikaslearen interesa, dedikazioa eta ahalmena. Gaitasuna orokorrean indartuko da, taldeek eskolan parte hartuz.
Musika Eskolako irakaskuntzaren helburuetako bat da ikasleak parte hartzea ahozko talde batean edo musika tresnen talde batean. Ikaslearen motibazioa indartzeko, aukera eman behar zaio ikasitakoa lehenbailehen praktikan jartzeko, oinarri tekniko handia izan arte itxaron gabe.

12 urtetik gorako gazte eta helduei zuzendutakoa, adin-mugarik gabe.

EDUKIAK
Honako hauek dira esparru horren oinarrizko edukiak:
Taldeko jarduerek garrantzi handia hartzen dute Musika Eskolaren barruan, bai ahozkoek, bai musika tresnen taldeek, klasikoek, modernoek eta tradizionalek. Horien antolaketa eta iraupena izango da ikastetxearen hezkuntza proiektuan aurreikusitakoa. Kontuan izango dira ikasleen maila eta gaitasunak ere, baita eskolak dituen baliabideak ere.
Gazteei zuzenduta egongo da: 12 urtetik gorako gazteak eta helduak.

Honela antolatuko da: esparru horretan, irakaskuntza taldean zein banaka egingo da lehen ikasturtean. Bigarren ikasturtetik aurrera ez da ikasturte kopuru zehatzetan egituratuko, baina aurretik ezagutza musikalik ez duten ikasleek hizkuntza musikaleko ikasturte bat egin beharko dute.

Honako ikasgai hauetan egituratuta egongo da:
- Nahitaezko ikasgaia, hizkuntza musikala (ikasturte 1). Aurretik ezagutza musikalik ez duten ikasleentzat soilik.
- Hautazko ikasgaia, helduen abesbatza. Aurretik ezagutza musikalik ez duten ikasleentzat soilik.
- Hautazko ikasgaia, taldeko jarduera. Ikasle guztientzat.
- Hautazko ikasgaia, hizkuntza musikala. Ezagutza musikala duten ikasleentzat.
- Hautazko ikasgaia, musika tresnen praktika. Ikasle guztientzat.

MUSIKA TRESNEN ESPEZIALITATEAK: 2. mailan deskribatutakoak.

TALDEKO JARDUERAK : 2. mailan deskribatutakoak.

Ikasketa errefortzua.
Ikasleek beren interesagatik, gaitasunagatik eta dedikazioagatik errefortzua eskatzen badute araututako ikasketetako erdi mailako graduko lehen ziklora sartzeko probetara aurkezteko helburuarekin, hizkuntza musikal aurreratua ikasteko talde bat izango dute eskura, eta bertako edukiak egokitu egingo zaizkio sarbide proba hori gainditzeari. Bi ikasturtekoa izango da, gehienez.

5.2 HEZKUNTZA ESPARRU OSAGARRIAK.-
Musika terapia lantegia hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleentzat. Banaka eta taldeka egingo da.

5.3.- TALDEAK
Ikastetxearen egituraren barruan hartuko dira berezko nortasuna eta jarduera duten musika talde guztiak, direla sortuak, direla sortu gabekoak, bertan egon nahi badute eta bertako antolakuntza, zuzkidura, irakasleak eta abar eskura nahi badituzte.

6.- IKASKETEN ANTOLAKETA
Musika Eskolan eman beharreko ikasketak mailatan banatuko dira, eta honako hauek izan ahalko dute: irakaskuntza orokorra, taldeen irakaskuntza eta 2879/1992 Dekretuan aurreikusitako guztiak, bertan zehaztutako baldintzetan:

Musika Eskolan eman beharreko irakaskuntzak mailetan egituratzen dira, eta izan daitezke: Irakaskuntza orokorra, taldeen irakaskuntza eta 289/1992 Dekretuan aurreikusitako guztiak, bertan zehaztutako baldintzetan.

- IRASKAS-DENBORAK

1. maila: Musika eta mugimendua (Harremana 1 eta 2) …….. Asteko 60 minutu/taldean

1. maila: Musika eta mugimendua (Harremana 3 eta Hastapena) …….. Asteko 90 minutu/taldean

1. maila: Musika tresnetan errotazioa……Asteko 30 minutu/taldean

1 .maila: Abesbatza……..…Asteko 60 minutu/taldean

2. maila: Musika hizkuntza……Asteko 120 minutu/taldean

2. maila: Musika tresnen praktika ……..…….Asteko 30 minutu/ banaka

2. maila: Taldearen jarduerak……..…Asteko 60 minutu/taldean

3. maila: Musika tresnen praktika ……. Asteko 30 minutu/banaka

3. maila: Musika hizkuntza……..Asteko 120 minutu/taldean

3. maila: Taldearen jarduerak……Asteko 60 minutu/taldean

Musika terapia lantegia…….Asteko 60 minutu/banaka edo taldean

Irakaskuntza indartua (Musika hizkuntza)……Asteko 60 minutu/taldean

Irakaskuntza indartua (Musika tresnen praktika)……Asteko 30 minutu/ banaka

7.- ZERBITZUARI ATXIKITAKO LANGILEAK

Enpresa esleipendunak uneoro izan beharko du zerbitzua emateko beste langile. Kontratatutako langile horiek maila bakoitzerako 289/1992 Dekretuak eskatutako titulazioa beharko dute gutxienez, edo titulazio baliokidea, titulazio espezifikoa duten espezialitateetan.

Honako egitura hau izango dute:
- Zuzendaritza eta Ikasketa burutza
- Pertsonal laguntzailea (administraria, …)
- Musika eskolako irakasleen klaustroa osatuko dute emandako espezialitate guztietako irakasleek.

Zerbitzu horiei atxikitako langileek zainduko dute Udalak emandako musika tresnen, instalazioen eta higiezinen erabilera egokia.
Dena den, ezingo da inola ere ulertu Musika Eskolako langileek kontratu bidezko lan harremanik edo beste inolakorik dutenik Udalarekin, eta esleipendunak bete beharko ditu bere betebehar fiskal eta laboral guztiak.

Irakasleen eta Eskolako Zuzendaritza Pedagogikoaren gaitasunak hauek izango dira:

A) Irakasleek eta Eskolako Zuzendaritza Pedagogikoak izan beharreko zeharkako gaitasunak:

- Lana eraginkortasunez eta modu motibagarrian antolatzea eta planifikatzea.
- Informazio garrantzitsua jasotzea, aztertzea, laburtzea eta behar bezala kudeatzea.
- Arazoak konpontzea eta erabakiak hartzea egiten ari den lanaren helburuei dagokienez.
- Eraginkortasunez erabiltzea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.
- Gutxienez atzerriko hizkuntza bat ulertzea eta erabiltzea bere lanbide-garapenaren esparruan.
- Autokritika egitea norberaren lanbide-garapenari eta pertsonen artean duen jokabideari dagokienez.
- Komunikazio-trebetasunak eta kritika eraikitzailea erabiltzea talde-lanean.
- Ideiak eta argudioak zentzuz eta kritikoki garatzea.
- Behar bezala integratzea diziplina anitzeko taldeetan eta askotariko kultura-testuinguruetan.
- Lantaldeak gidatzea eta kudeatzea..
- Lan-jardunean estetikarekiko, ingurumenarekiko eta dibertsitatearekiko sentiberatasunean eta haiek balioestean oinarritutako etika profesionala garatzea.
- Kultura-, gizarte- eta arte-aldaketetara eta lanbide-esparruan gertatzen diren aurrerapenetara egokitzea lehiakor izanik, eta etengabeko prestakuntza-bide egokiak aukeratzea.
- Bikaintasuna eta kalitatea bilatzea lanbide-jardunean.
- Ikerketa-metodologia menderatzea proiektuak, ideiak eta irtenbide bideragarriak sortzean.
- Modu autonomoan lan egitea eta balioestea zeinen garrantzitsuak diren ekimena eta espiritu ekintzailea lanbide-jardunean.
- Eskura dituen bitartekoak eta baliabideak kultura- eta ingurumen-ondarearekiko arduraz erabiltzea.
- Lanbide-jardunaren bidez gizartea kultura-ondarearen garrantziaz, ondare horrek esparru guztietan duen eraginaz eta balio garrantzitsuak sortzeko daukan ahalmenaz sentiberatzen laguntzea.

B) Irakasleek eta Eskolako Zuzendaritza Pedagogikoak izan beharreko gaitasun orokorrak:

- Musikaren oinarri teorikoak jakitea eta behar bezala garatuta edukitzea musika-materiala ezagutzeko, ulertzeko eta buruz ikasteko trebetasunak.
- Irakurketa, inprobisazio, sortze eta birsortze musikalerako trebetasun egokiak erakustea.
- Musika-testuen notazio grafikoa zuzen sortzea eta interpretatzea.
- Musika-materialak ezagutzea entzumen-gaitasunaren garapenari esker, eta gaitasun hori lanbide-jardunean erabiltzen jakitea.
- Bere jarduera-esparruko baliabide teknologikoak zein diren eta musikan zer aplikazio dituzten jakitea, eta sortzen diren gauza berriak bereganatzeko prestatzea.
- Musika-instrumentu bat edo batzuk bere jarduera-esparru nagusirako maila egokian erabiltzen jakitea.
- Gaitasuna erakustea musika-proiektu parte-hartzaileetan musikalki elkarri eragiteko.
- Lan-metodo egokienak erabiltzea ikerketa pertsonalaren esparruan eta musika-jardun kolektiboan sortzen diren erronkak gainditzeko.
- Bere instrumentu nagusiak zer ezaugarri dituen instrumentua egiteko moduari eta daukan akustikari dagokienez, zer bilakaera historiko izan duen eta, beste diziplina batzuk kontuan hartuta, elkarri nola eragin dioten jakitea.
- Askotariko kontzeptu musikalei buruzko ikuspuntuak hitzez adieraztea eta argudiatzea.
- Errepertorio zabala, eguneratua, bere espezialitatean oinarritua eta beste tradizio batzuetara irekia erabiltzen ohituta egotea. Errepertorio horren ezaugarri estilistikoak ezagutzea eta argi eta osorik deskribatu ahal izatea.
- Egitate musikalaz eta egitate horrek balio estetiko, artistiko eta kulturalen bilakaerarekin duen loturaz behar adina dakiela egiaztatzea.
- Hizkuntza musikalaren oinarriak eta egitura zein diren jakitea, bai eta haiek interpretazio-, sortze-, ikerketa- eta pedagogia-praktikan erabiltzen jakitea ere.
- Musikak bere tradizioetan zer bilakaera historiko izan duen jakitea ikuspuntu kritiko batetik, arte musikalaren garapena testuinguru sozial eta kulturalean kokatzeko.
- Musikaren literatura historiko eta analitikoko obra garrantzitsuenen ezagutza zabala izatea.
- Praktika musikala garatzen den testuinguru sozial, kultural eta ekonomikoa ezagutzea, eta arreta berezia jartzea haren inguru hurbilenean, alderdi globala ahaztu gabe.
- Estilo eta praktika musikal guztiekin ohituta egotea, bere jarduera-esparrua ulertu eta aberastu ahal izateko testuinguru kultural zabalago batean.
- Idatziz eta hitzez bere lanbide-jardueraren edukia eta helburua jakinaraztea pertsona espezializatuei, lexiko tekniko eta orokorra ongi erabiliz.
- Musikak hainbat mailatan zer pedagogia- eta hezkuntza-ondorio dituen jakitea.
- Musika-instrumentuen sailkapena eta ezaugarri akustiko, historiko eta antropologikoak jakitea.
- Bere kontzeptu artistikoak sortzea eta taxutzea, haien bidez nahi duena adierazteko gaitasuna garatuz, bereganatutako teknika eta bitartekoetan oinarrituta.
- Musika-baliabide zabalak eta askotarikoak izatea, musika-piezak sortu edo moldatu ahal izateko, hala nola hainbat testuingurutan inprobisatzeko, ikasitako estiloak, formatuak, teknikak, joerak eta askotariko hizkuntzak oinarri moduan hartuta.
- Musika-sorkuntza egiturazko pentsamendu aberats eta konplexu bati soinu-forma emateko bide moduan balioestea.
- Lanbide-bizitzan nork bere burua hezteko gaitasunak garatzea.
- Ikasteko eta ikertzeko metodologiak jakitea eta haiek erabiltzeko gauza izatea, bere karreran zehar musika-jarduera etengabe garatu eta berritu ahal izateko.
- Gauza izatea norberaren musika-jarduera pentsamendu zientifiko eta humanistikoaren beste diziplina batzuekin, oro har arteekin eta bereziki gainerako musika-diziplinekin lotzeko, bere lanbidejarduna diziplina-aniztasunarekin aberastuz.
- Bere lanbide-esparruari buruzko legeak ezagutzea eta aplikatzea. Konposizio-espezialitatek

C) Eskolako Zuzendaritza Pedagogikoak izan beharreko zaharkako gaitasunak:

- Musikaren oinarri teorikoak jakitea eta behar bezala garatuta edukitzea musika-materiala ezagutzeko, ulertzeko eta buruz ikasteko trebetasunak.
- Irakurketa, inprobisazio, sortze eta birsortze musikalerako trebetasun egokiak erakustea.
- Musika-testuen notazio grafikoa zuzen sortzea eta interpretatzea.
- Musika-materialak ezagutzea entzumen-gaitasunaren garapenari esker, eta gaitasun hori lanbide-jardunean erabiltzen jakitea.
- Bere jarduera-esparruko baliabide teknologikoak zein diren eta musikan zer aplikazio dituzten jakitea, eta sortzen diren gauza berriak bereganatzeko prestatzea.
- Musika-instrumentu bat edo batzuk bere jarduera-esparru nagusirako maila egokian erabiltzen jakitea.
- Gaitasuna erakustea musika-proiektu parte-hartzaileetan musikalki elkarri eragiteko.
- Lan-metodo egokienak erabiltzea ikerketa pertsonalaren esparruan eta musika-jardun kolektiboan sortzen diren erronkak gainditzeko.
- Bere instrumentu nagusiak zer ezaugarri dituen instrumentua egiteko moduari eta daukan akustikari dagokienez, zer bilakaera historiko izan duen eta, beste diziplina batzuk kontuan hartuta, elkarri nola eragin dioten jakitea.
- Askotariko kontzeptu musikalei buruzko ikuspuntuak hitzez adieraztea eta argudiatzea.
- Errepertorio zabala, eguneratua, bere espezialitatean oinarritua eta beste tradizio batzuetara irekia erabiltzen ohituta egotea. Errepertorio horren ezaugarri estilistikoak ezagutzea eta argi eta osorik deskribatu ahal izatea
- Egitate musikalaz eta egitate horrek balio estetiko, artistiko eta kulturalen bilakaerarekin duen loturaz behar adina dakiela egiaztatzea.
- Hizkuntza musikalaren oinarriak eta egitura zein diren jakitea, bai eta haiek interpretazio-, sortze-, ikerketa- eta pedagogia-praktikan erabiltzen jakitea ere.
- Musikak bere tradizioetan zer bilakaera historiko izan duen jakitea ikuspuntu kritiko batetik, arte musikalaren garapena testuinguru sozial eta kulturalean kokatzeko.
- Musikaren literatura historiko eta analitikoko obra garrantzitsuenen ezagutza zabala izatea.
- Praktika musikala garatzen den testuinguru sozial, kultural eta ekonomikoa ezagutzea, eta arreta berezia jartzea haren inguru hurbilenean, alderdi globala ahaztu gabe.
- Estilo eta praktika musikal guztiekin ohituta egotea, bere jarduera-esparrua ulertu eta aberastu ahal izateko testuinguru kultural zabalago batean.
- Idatziz eta hitzez bere lanbide-jardueraren edukia eta helburua jakinaraztea pertsona espezializatuei, lexiko tekniko eta orokorra ongi erabiliz.
- Musikak hainbat mailatan zer pedagogia- eta hezkuntza-ondorio dituen jakitea.
- Musika-instrumentuen sailkapena eta ezaugarri akustiko, historiko eta antropologikoak jakitea.
- Bere kontzeptu artistikoak sortzea eta taxutzea, haien bidez nahi duena adierazteko gaitasuna garatuz, bereganatutako teknika eta bitartekoetan oinarrituta.
- Musika-baliabide zabalak eta askotarikoak izatea, musika-piezak sortu edo moldatu ahal izateko, hala nola hainbat testuingurutan inprobisatzeko, ikasitako estiloak, formatuak, teknikak, joerak eta askotariko hizkuntzak oinarri moduan hartuta.
- Musika-sorkuntza egiturazko pentsamendu aberats eta konplexu bati soinu-forma emateko bide moduan balioestea.
- Lanbide-bizitzan nork bere burua hezteko gaitasunak garatzea.
- Ikasteko eta ikertzeko metodologiak jakitea eta haiek erabiltzeko gauza izatea, bere karreran zehar musika-jarduera etengabe garatu eta berritu ahal izateko.
- Gauza izatea norberaren musika-jarduera pentsamendu zientifiko eta humanistikoaren beste diziplina batzuekin, oro har arteekin eta bereziki gainerako musika-diziplinekin lotzeko, bere lanbidejarduna diziplina-aniztasunarekin aberastuz.

- Bere lanbide-esparruari buruzko legeak ezagutzea eta aplikatzea. Konposizio-espezialitateko musika-tituludunaren gaitasun espezifikoak

D) **0tik 6 urtera bitarteko ikasleen** irakasleek izan beharreko gaitasun espezifikoak. Era berean, gomendatzen da Musika Eskolako irakasle guztiek ere gaitasun horiek izan ditzatela (ikasleen adinera eta bizitzako garapen fase bakoitzera egokitu behar dira, hirugarren eta laugarren adinera ere bai): urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren 23.1 artikuluak aipatzen dituen ikastaro pedagogiko espezializatuak egin izana; besteak beste, eta adibide gisa, hauek:

- Hezkuntzaren Teoria, Ideia eta Praktika Pedagogikoak Haur Hezkuntzan.
- Haur Hezkuntzaren Didaktika
- Irakaskuntzaren teoria eta praktika
- Musika Haur Hezkuntzan
- Garapenaren Psikologia
- Hezkuntzaren Psikologia eta Soziologia
- Arreta goiztiarra Haurren Garapenean
- Musika Hezkuntzan erabiltzeko baliabide didaktikoak-teknologikoak Haur Hezkuntzan
- Aniztasunari arreta, bai ikasteko zailtasunen arloan bai musika gaitasun handien arloan. Identifikatzea eta esku-hartzea, hezkuntzaren errefortzua

Enpresa esleipendunaren ardura izango da irakasleen eta Eskolako zuzendaritza pedagogikoaren etengabeko prestakuntza, eta sorturiko ezagutzaren kudeaketa sustatuko du arlo hauetan: udalerri mailako musika irakaskuntza, eguneratze tekniko-pedagogikoko ikastaroetan parte hartzea eta zerbitzua ematen den gainerako udalerrietan ezar daitezkeen hobekuntza proiektuak edo proiektu pilotuak abian jartzea.

8.- KONTRATISTARI ESKA DAKIZKIOKEEN BETEBEHARRAK.-

Kontratistaren obligazioak

Teknikoak:

- Kontratistak kontratuaren arduradun bat izendatu behar du udalerri bakoitzean, eta udaletako kultur departamentuekin elkarlanean zehaztu behar du urteko egutegia.
- Kontratistak udaletan lan egiten duten beste talde batzuekin egin behar du lan, ikasturte bakoitzean talde horietako harrobia ziurtatzeko planak proposatuz eta berrikusiz eta talde horiek musika-eskolarekin batera ekitaldiak antola ditzaten bultzatuz.
- Musika-eskolako zuzendaritzaren organigrama egin behar du.
- Hezkuntza arautuko ikastetxeekin elkarlanean aritzeko proiektu bat egin behar du.
.- Guraso eta ikasleen elkarte bat sortu behar du, musika-eskolako klaustroan ordezkaritza izango duena. Elkarte horrek zenbait erantzukizun izan beharko ditu musika-eskolako funtzionamenduan eta etorkizuneko proiektuetan (ikasketei segimendua egin, ikasketa-planen eta antolatutako ekitaldien berri izan...)
Horrez gainera, segimendu-batzorde bat sortuko da.
Segimendu-batzordean ordezkaritza duen guraso-elkarte bat sortzea bultzatuko da.
- Ikasturte bakoitzaren amaieran (uztailean), ikasturtean egindako jarduerei eta ikasturte berriari buruzko memoria bat aurkeztu beharko da udaletxeetan. Memoria horrek honako atal hauek izan beharko ditu, gutxienez: matrikulazioak, ebaluazioak, taldeekin adostutako harrobi-planifikazioen aurreikuspenak eta ekitaldien balorazioak eta aurreikuspenak.

.- Musika-eskolako irakasleek dagokien titulazioa izan beharko dute musikan edo dagokien espezializazio-arloan. Irakasleen etengabeko prestakuntzarako proiektuak bultzatuko dira.
-Irakasle guztien euskara-maila bermatu beharko da. Musika-eskolak lehentasuna eman beharko dio musika-eskolak euskaraz emateari, eta, beharrezkoa den guztietan, udaleko euskara-alorrekin egin beharko du lan.
-Udal bakoitzak musika-tresnen eta musika-ekipamenduen inbentarioa egin beharko du.
-Urte bakoitzeko maiatzean, kontratistak zer musika-tresna eta bestelako hornidura behar dituen adierazi behar du, eta, eskaera horren arabera, erosketa-plan bat zehaztuko da (musika-tresnak, soinu-ekipoak, azpiegitura informatikoak... erosteko). Hitzarmenaren segimendu-batzordeak aztertuko du erosketa-plan hori. Beharrak eta aurrekontuak aztertu ondoren, erosketa-baldintzak zehaztuko dira (udaletxe bakoitzak ordaindu beharreko ehunekoa). Dagokion espedientean formalizatu beharko dira udalen arteko truke, alokairu eta salerosketak.

-Erositako musika-tresna eta ekipamenduak udalen jabetzakoak izango dira beti.

-Euskal musika tradizionaleko tresnak prekarioan utziko zaizkie ikasleei, prezio baxu baten truke, tresna horien irakaskuntza artistikoaren lehenengo bi urteetan.

-Alokairuetatik lortutako diru-sarrerak modu bereizian jasoko dira urteko kontuetan, eta musika-tresna berriak erosteko erabili ahal izango ditu kontratistak.

-Udalek nahikoa kreditu esleitu beharko dute afinazio, konponketa eta bestelakoak finantzatzeko.

Administratiboak:

-Kontratistak hitzarturiko moduan eta jarraikortasunarekin eskaini behar du zerbitzua, eta zehazturiko baldintzen arabera erabiltzeko eskubidea bermatu behar die norbanakoeii, hala badagokio, aurrez ezarritako kontraprestazio ekonomikoaren truke;
- Kontratistak zerbitzua egoki eskaintzen dela zaindu behar du;
-Zerbitzuarekin loturiko jarduerek hirugarrenei sortutako kalteak ordaindu beharko ditu kontratistak, Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik sorturikoak salbu;

-Kontratistak kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokian entregatu beharko ditu kontratuaren arabera entregatu beharreko obra eta instalazioak, hala dagokionean.
-Zerbitzuei atxikitako ondasunak ezingo dira bahitu.
-Kontratistaren ez-betetzeak kalte larriak eta beste bitarteko batzuen bidez konponezinak diren kalteak eraginez gero zerbitzuari eta Administrazioak kontratua indargabetzea erabakitzen ez badu, kontratua kontrolatzea erabaki dezake, kalte hori desagertu artean. Kasu guztietan, efektiboki sorturiko kalte-galerak ordaindu beharko dizkio kontratistak Administrazioari.
-Administrazioak mantenduko ditu herritarrei prestazio zuzenak eskaintzeko zerbitzuen jarduera egokia ziurtatzeko beharrezkoak diren polizia-ahalmenak.
-Herritarrei prestazio zuzenak emateko zerbitzuak udalen areto edo instalazioetan eskainiko dira. Areto edo instalazio horiek prekarioan lagako zaizkio kontratistari kontratua indarrean dagoen bitartean.
-Esleipendunak eskaintzen duen zerbitzuak honako baldintza hauek bete beharko ditu:
-Kontratistak musikari eta musika-tresnei buruzko oinarrizko ikastaroak eskaini beharko ditu (Euskal Autonomia Erkidegoko musika-irakaskuntza ez-arautuko zentroen –musika-eskolen– sorrerari eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko arauak jasotzen dituen 1992ko urriaren 27ko 289/1992 Dekretuan zehazten dira gutxienez irakatsi beharreko musika-tresnak).

-Aipaturikoaz gainera, kontratuaren esleipenean zehazturiko prestakuntza eskaini beharko du.
-Musika-eskolek dagozkien herrietako kultura- eta jai-ekitaldietan parte hartu beharko dute, ikasturtean zehar ikuskizunak eta jaialdiak eskainiz.
-Kontratistak honako informazio hau emango du, bileratan edota txostenen bitartez:

1) Parte hartuko du derrigorrean jarraian azaltzen diren bileretara, zehaztutako datetan eta helburuekin:
    a. Ekainaren lehenengo hamabostaldian: Aurreizen-emateen emaitzak, irakasleen beharra, asteko ordutegien antolaketa, ikasturteko egutegiaren proposamena, material-erosketarako proposamena eta ikasleek ordaindu beharreko kuoten proposamen ez loteslea.
    b. Irailaren azkeneko astean: Ikasturte hasieraren informazio orokorra eta inzidentziak.
    c. Martxoaren aurreneko astean: Helburuen betetze-mailari buruzko informazioa.
2) Era berean, parte hartuko du derrigorrean Udal bakoitzak deitutako bileretan inzidentziekin, komunikazioarekin edo ekintzen programazioekin lotutako gaiak jorratzeko helburuarekin.
3) Hileko fakturarekin batera, Udal bakoitzak helaraziko dien ereduari jarraiki txosten teknikoa aurkeztuko du.
4) Inzidentzia bat gertatu eta beranduenez ere handik 48 ordutara, horren berri emango dio dagokion Udalari.
5) Ordutegietan edota egutegian aldaketaren bat suertatu beharko balitz, beranduenez ere gertatu baino 48 ordu lehenago horren berri emango dio dagokion Udalari.
6) Udalek eta kontratistak dokumentu honetan jasotzen den xedea behar bezala betetzen ari dela ziurtatzeko helburuarekin zenbait bilera egingo dituzte. Helburu berdinarekin, ikasleen gurasoekin bilera informatzaileak antolatuko dira eta beste batzuk, gutxienez ikasturtearen hasieran eta bukaeran, udalerri bakoitzean taldeen harrobia sendotzeko lana egoki planifikatzeko eta ebaluatzeko.

-Kontratua amaitzen denean, esleipendunak ordura arte erabilitako lekua utzi beharko du, eta ez du luzapenetarako edo kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izango.

-Lehentasunez, udalek prestatutako lokaletan eskainiko dira zerbitzuak. Hala eta guztiz ere, enpresa kontratistak une oro ziurtatu behar du lokal horiek betetzen dituztela Euskal Autonomia Erkidegoko musika-irakaskuntza ez-arautuko zentroen –musika-eskolen– sorrerari eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko arauak jasotzen dituen 1992ko urriaren 27ko 289/1992 Dekretuan zehazturiko baldintza teknikoak.

-Kontratistak izango du azpiegituren eta udal-lokaletan erabiltzen diren azpiegitura, material eta tresnen erabilera eta mantentze-lanen gaineko erantzukizuna, eta udaleko kultura-zerbitzuarekin koordinazioan arituko da.

-Udalek eta kontratistak zenbait bilera egin beharko dituzte dokumentu honetan adierazitako helburua ondo betetzen dela kontrolatzeko. Horretarako, ikasleen gurasoei informazioa emateko bilerak eta udaletako harrobi-lanak egoki planifikatu eta ebaluatzeko bilerak antolatu beharko dira, gutxienez, ikastaro bakoitzaren hasieran eta amaieran.

-Musika-eskoletako langile guztiek altan egon behar dute Gizarte Segurantzan, eta dagokion hitzarmen kolektiboko oinarriak eta baldintzak errespetatu beharko dira. Kontratatutako langileek ez dute inolako harremanik izango udalarekin.

Ekonomikoak:

-Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak diru-laguntzak ematen dizkie % 25eko edo gehiagoko (edo antzeko) udal-finantziazioa duten musika-irakaskuntzako zentro pribatuei. Kontratistak diru-laguntza hori aplika dadin eskaria aurkeztu, diru-laguntza hori jaso, eta zerbitzuaren kostu osoari aplikatu beharko dio.

Eskaera hori ez egitearen edo gaizki egitearen ondorioak kontratistaren lepotik joango dira eta kontratuaren prezioaren ehuneko 15eko zigorrarekin zehatuko dira. Eskarian desglosatuko ditu, gutxienez ere, herri bakoitzekoa, herri bakoitzeko ikasleen kopurua eta Udal bakoitzak ematen dien diru-kopurua. Informazioa kontratazio-mahai batek esaktuta edota zerbitzua emango den herrietako Udalek eskatuta.

-Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantza Fiskaletan jasoko dira musika-eskolako zerbitzuari dagozkion tasak.
Udalek, esleipendunak ekitaldi bakoitzean (uztailean) egindako proposamena aztertu ondoren, ikasleek ordaindu beharreko matrikula eta kuotak, hobariak eta zerbitzuaren gainerako baldintzak ekonomikoak onartu beharko dituzte, Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantza Fiskalak onartzearekin batera.
Kontratistak kudeatu beharko ditu matrikulak eta kobrantzak, eta hark erabiliko ditu, zuzenean, baliabide horiek.

-Udalek behar adinako aurrekontu-kreditua aurreikusi eta esleituko dute kontratu honek xede duen zerbitzua ordaindu ahal izateko. Kontratuari dagozkion ordainketak hiru hileka ordaindu beharko dira.

- Kontratu honetan, ez dira prezioak berrikusiko.

-Kontratistak ordaindu beharko ditu eguneroko jarduerak bere lokaletan eta musika-eskolak ematen diren udal-lokaletan sorturiko gastu korronteak (argia, garbiketa, berokuntza, fotokopiagailua, papera eta erosi beharreko altzariak eta bestelakoak).

-Udal-lokalak prekarioan lagako dira, hau da, interes publikoa dela eta, Administrazioak edozein unetan berreskuratu ahal izango ditu lokal horiek.

-Udalek kontratistak antolaturiko ekitaldietako gastuak finantzatu beharko dituzte. Aurrez, horiek aztertu eta onartu beharko dituzte udalek.

-Udalek eta kontratistak zenbait bilera egin beharko dituzte dokumentu honetan adierazitako helburua ondo betetzen dela kontrolatzeko. Horretarako, ikasleen gurasoei informazioa emateko bilerak eta udaletako harrobi-lanak egoki planifikatu eta ebaluatzeko bilerak antolatu beharko dira, gutxienez, ikastaro bakoitzaren hasieran eta amaieran.

9.- KLAUSULA LINGUISTIKOAK
Administrazioarekiko edo hirugarrenekiko harremanetan, hizkuntza gaitasunei dagokienez, enpresak kontratatutako langileek Administrazio kontratatzailean eskatzen diren baldintza berdintsuak bermatu beharko dituzte.

Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Zerbitzuaren lehenengo hizkuntza euskara izango da.

10.- UDALAREN BETEBEHARRAK

ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK
1. Bere jarduera egiteko, esleipendunak udaleko aretoak eta ekipamenduak erabili ahal izango ditu.
Uzte hori prekarioan egingo da; beraz, interes publikoa egonez gero, Administrazioak edozein unetan berreskuratu ahal izango ditu aretoak.

2. Udalek egokia den udal finantzaketa edukiko dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik diru laguntzak eskuratzeko.
3. Utzitako aretoen hornikuntzak udalek ordainduko dituzte, telefonoa eta interneteko konexioa salbu.
4. Udalek laguntza teknikoa eskainiko dute Musika Eskolak sustaturiko ekimenetan; aurrez, dagokion udalean gastuaren espedientea izapidetu beharko da.

Udalaren lehentasuna izango da udal instalazioak erabiltzea, eta nahikoa ikasgela eta espazio utzi beharko ditu jarduerak modu egokian egiteko.
a) Udal lokaletan: Udalak bere gain hartuko ditu higiezinaren gastu hauek, arrazoi hauengatik sortutakoak:
- Berritze lanak: eraikina handitzea, hobetzea, modernizatzea, egokitzea, moldatzea edo indartzea.
- Konponketa lanak, ezustean edo istripuz higiezinean sortutako kalteak konpontzeko beharrezkoak. Egitura erresistenteari eragiten diotenean konponketa handi gisa sailkatuko dira, bestela, konponketa sinple gisa.
- Kontserbazio lanak, ohiko erabileragatik eraikinak jasandako kalteak konpontzekoak.
- Horrez gain, hurrengo apartatuan zehaztutako zerbitzua emateko musika tresnen zuzkidura Udalaren ardura izango da, eta enpresa esleipendunari dagokio hura osatzea haren eskaintzan jasotako jarduera guztiak egiteko. Enpresaren gain gelditukо dira musika tresnen mantenuagatik sortutako gastuak, hala nola konponketengatik eta afinatzeagatik.
-Uraren, argindarraren eta berokuntzaren gastu arruntak, baita garbiketa zerbitzuarenak ere.

b) Esleipendunaren lokaletako gastuak esleipendunak ordainduko ditu.

11.- MUSIKA TRESNEN ZUZKIDURA
Kontratistak ekainean aurkeztuko ditu musika tresnen eta beste horniduren beharrak; horietan oinarrituta erosketa plan bat egingo da (musika tresnak, musika ekipoak eta azpiegitura informatikoak erosteko). Erosketa planifikazio hori hitzarmenaren jarraipen batzordeak ikuskatuko du. Beharrak eta aurrekontuak aztertu direnean, erosketa baldintzak zehaztuko dira (Udal bakoitzak ordaindu beharreko ehunekoa). Herrien arteko musika tresnen trukeak, errentamenduak eta salerosketak dagokien espedientean formalizatuko dira.

Erositako musika tresnak eta ekipamenduak Udalaren jabetzakoak izango dira betiere.
Euskal musika tradizionaleko musika tresnak prekarioan lagako zaizkie, edo prezio baxu baten truke utziko zaizkie ikasleei, irakaskuntza artistikoaren lehen bi urteetan.

Idiazabalen, 2018ko ekainaren 4ean

Beatriz Mena Diez
Kultur teknikari-dinamizatzailea
Idiazabalgo Udala